

# Gorritiren animaliak

Joxean Agirre

**G**orriti eta bere Animalien ikuski-zuna debekatzeko eskatuz 60.000 sinadura bildu dituzte eta nik ez dut penarik hartzen, ikuskizun triste eta kutre samarra iruditu izan baitzait beti. Animalisten kausa interesgarria iruditzen zait, baina ideologia gehienek bezalaxe, paradoxa eta kontraesan ikusgarriak dituzte eta gauzak muturrera eramateko joera bat. Ezinbestekoa iruditzen zait tauromakiaren kontrako borroka. Torea-tzaileak heriotza tentatu nahi badu, joan dadila zezenak dauden lekura, *dehesa* batera esate baterako, eta eman diezazkiola nahi dituen adina *veronika*, baina eskue-tan ezpatarik gabe. Zezenketa okagarria iruditzen zait estetikoki ere eta ikuskizunaren espainiartasuna ere nabarmenduko nuke, zergatik ez?

Ondo iruditzen zait animaliekin lan egiten duten zirkuen eta zoologikoen kontrako borroka ere, ez baitago ikuskizun triste-

agorik animalia bat leku horietan ikustea baino. Ehiztarien kontra ere egin dezatela gogor, nik inguruan ditudanek bederen txori txikiei tiro egiten ematen baitituzte igande goizak. Baina bakean utziko nituzke ahari-jokoak eta idi-demak eta baita soka-muturrak ere; berez desagertzen ari direlako, batetik, eta animaliek hor sufritzen dutenaz zalantza handiak ditudalako, bestetik. Zergatik Ascot-eko zaldi lasterketan, Berkshiren, 30.000 lagun –tartean Eliza-beth II.a erregina– begira dituztela lasterka egiten duten zaldiek ez dute sufritzen? Edo beren gogoz egiten dituzte langa gaineko jauziak?

Benetako animalistak bagina, animalia guztiak errespetatu beharko genituzke, nola Darwinen eboluzioaren eskalan goian dauden tximuak hala behean dauden arratoiak. Zergatik ez dute protestatzen beren herriko udalak arratoi garbiketa masiboak egiten dituenen? Niri

errespetu gehien ematen didaten animalistak beganoak dira, baina hauek ere milaka xomorro hiltzen dituzte mendi buelta bat ematera doazenean. Ala xomorroak ez dira animaliak?

Gure etxean aitonak behiak garbitu eta orrazten ematen zituen igande arratsaldeak. Hura zen benetako animalista. Baserri bi gorago demarako idiak zituzten eta Indiako behi sakratuak bezain lasai bizi ziren. Baserri bi beherago mutilzahar ahari zale bat genuen. Egutero dutxatu, lehortu eta laztantzen zuen gizonak animalia, manta batekin estalirik korrika saioa egin eta gero. Egun batean manta zuri-gorri-berdearekin zihoan nonbait eta auzoko batek adarra jotze aldera, «hori nazionalisten manta duk», deiadar egin omen zion eta ahari jabeak, formazio politiko izugarririk ez nonbait, eta «hau nirea duk, joan den igandean Tolosako txapelketan irabazitakoa», erantzun zion. •

# Ez dakit zer sentituko duen...

Amagoia Mujika

**E**z dakit zer sentituko duen sexu erasoak salatzeke egin diren elkarretaratze handi horiek ikusita. Ez dakit horien berri izango duen ere. Ez dakit. Akaso modu bortitzean erasoak izan den emakumeak entzuteari eta ikusteari uzten dio. Akaso egun batzuetan, akaso betirako. Bere burua entzuten eta ikusten nahiko lan izango du, kanpora begira jartzeko ere. Total, elkarretaratze horiek igual beste batzuentzat balioko dute. Beretzat ez, bera ja hautsita dago.

Akaso bere gorputza desberdin sentituko du, berea ez balitz bezala. Besterena delakoan. Beldurra, amorrua, tristura, gogorik eza sentituko ditu agian. Negargura, tristu-

ra, inpotentzia eta negargura, berriz. Ez du goserik izango akaso, edo modu konpultsiboan jango du. Lo egiteko arazoak izango ditu, etengabe esnatuko delako builaka eta negarrez. Gerta daiteke. Ez da gustura sentituko lagunekin, etxekoekin, bikotearekin. Ez da gustura sentituko bakarrik. Gertatu dena benetakoa ote den galdetuko dio etengabe bere buruari, amesgaizto bat izan eta esnatzeko ahalegin desesperatuan, itolarri itogarrian. Segur aski alerta egoera bortitzean egongo da; urduri, haserrekor, beldurti. Eta asko kostatuko zaio zerbaitekin kontzentrazioa lortzea. Gerta daiteke errudun sentitzea, hau edo hura egin izan balu, bide hau edo hura hartu izan balu,

gehiago defendatu izan balitz, gutxiago defendatu izan balitz... Eguteroak astuna, ikaragarria, jasanezina, latza, beltza, itogarria gertatuko zaio akaso. Igual sentituko du inoiz ez dela gai izango bere eguteroak bueltatu eta horri aurre egiteko. Segur aski sentituko du betirako geratuko dela horrela, puskatuta.

Festara, ondo pasatzera, dantzara, barre lasai egitera, arima eta gorputza gozatzera ateratzen den emakume bat era horretan birrintzea baimentzen duen jendarteak oso serio begiratu behar du bere burua ispiluan. Gustatzen zaigu ikusten duguna? Zer egiteko prest gaude hori aldatzeko? Elkarretaratzeak baino gehiago beharko da... •